



Esp.zk. SUBV_CON_COMPET/2025/22

DIRULAGUNTZA-DEIALDIA, NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEAN, IRUÑEKO
MERKATARIEN ELKARTEENDAKO, 2024KO URRIAREN 1ETIK 2025EKO IRAILAREN
30ERA MERKATARITZA DINAMIZATZEKO, BULTZATZEKO ETA SUSTATZEKO
JARDUERAK, ETA MERKATARITZA-HIRIGINTZAKOAK EGIN DITZATEN

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri.** ([2006ko 21. NAOn](#), [otsailaren 17koan](#), [argitaratua](#)).

Iruñeko Udalaren 2025eko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dauden helburuetako batzuk dira dinamizazio- eta koordinazio-kanpainak sustatzea, informazioa eta komunikazioa hobetzea eta merkataritza eta eskulangintza sustatzea. Plan horrek, 11. ildo estrategikoan (Merkataritza), dirulaguntza-lerro espezifiko bat jasotzen du, zehazki, laguntzak norgehiagokako araubidean emateko deialdi bat, Iruñeko merkatarien elkarteak laguntzeko. Deialdi hori aipatutako Plan Estrategikoak ezartzen dituen helburu, eremu eta oinarritzko ildoekin guztiz bat datorren tresna da.

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emaila:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako zinegotzi ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea: Iruñean presentzia handiena duten Iruñeko merkatarien elkarteak diruz laguntzea –eremukoak zein gremioetakoak–, merkataritza-sektorea sustatzeko jarduerak eta merkataritza dinamizatzeko eta bultzatzeko jarduerak diseinatu, garatu eta horien jarraipena egin dezaten, 2024ko urriaren 1etik 2025eko irailaren 30era bitarte.
2. Deialdiaren helburua: Deialdi honen helburua Iruñeko txikikazko merkataritzaren sektorea lagundu eta merkatarien asoziazionismoa sustatzea da. Hurbileko merkataritza sustatzea da Iruñeko Hiri Agenda-2030 Estrategiaren helburu estrategikoetako bat. "Gizarte-inklusioaren aldeko Iruña" 2. dimentsio estrategikoak barne hartze du "L6. Iruña, hurbileko merkataritzaren eta zerbitzuen jabe" jarduketa-ildoa, eta honakoa proposatzen du: 2030eko Iruñean, hurbileko merkataritza (kontzeptua zentzu zabalean ulertuta, barne hartuta merkataritza, ostalaritza eta Iruñean bizi diren pertsonen eguneroko hornidura-, kontsumo- eta aisia-



beharrak asetzen dituzten zerbitzuak) suspertutako funtsezko sektorea da, izan ere, egituratzailea da, auzoei bizitasuna eta identitatea ematen die, irudi ona eta hiria beste batzuetatik bereiztea eskaintzen du, tokiko enplegua sortzen du, eta herritarrei bizi-kalitatea ematen dien oinarritzko zerbitzu bat ematen du. Ildo estrategiko horren xedea da tokiko produktibitatea indartzea, enplegua sortzea eta jarduera ekonomikoa dinamizatzea eta dibertsifikatzea.

10. HE. Hurbileko merkataritza-eredua ezartzea: Iruñeak auzo bakoitzean merkataritza-ekipamenduak eta zerbitzu publikoetakoak eskaintzen ditu, eta horiei esker eguneroko kontsumoa ahalbidetu, joan-etorriak txikiagotu eta kontsumo arduratsua bultzatzen da.

11. HE. Merkataritza-eredu askotariko eta lehiakorra garatzea: Iruñeak askotariko saltoki eta zerbitzuak uztartzen ditu, digitalizazio-prozesuetara eta kontsumitzaileen eskari berrietara egokituak, azken finean, kalitatezko erosketak eta zerbitzu-esperientzia eskaintzen duten negozio lehiakorrak.

Hiriko merkatarien elkarteak eragile aktiboak izan dira 2030 Estrategia - Hiri Agenda diseinatu eta onartzeko prozesuan, eta 2030 Batzordeko kide dira (hiriko eragile pribatuen eta publikoen ordezkartza-organoa). Merkatarien elkarteek lanak aipatutako 10. HE eta 11. HE helburu estrategikoak erdiesten lagunduko du. Hiriko merkataritza- eta enpresa-sarea mantentzen eta hobetzen laguntzen da hiriko merkataritza-guneetan merkataritza sustatzeko, bultzatzeko, suspertzeko eta dinamizatzeko ekintzak garatzea erraztu eta bultzatzearen bidez, bai eta elkarlanean arituta elkarteek sostengua emanez eta eta beren jarduketak-eremuetako merkataritza eta zerbitzuetako enpresa txiki eta ertainak ordezkatu eta horiek babesteko egiten duten lana bultzatuz.

3. Diruz laguntzen ahal diren ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:

Dirulaguntzaren xede izanen dira honako jarduketak-ildo hauetakoren batean eta Iruñeko udal-mugartearen barruan garatzen diren ekintzak.

Diruz lagundutako jarduerak eta ekintzak:

- 3.1 Animazio- eta dinamizazio-ekintzak
- 3.2 Sustapen- eta komunikazio-ekintzak
- 3.3 Enpresen sustapenerako eta merkataritza-asoziazionismoko ekintzak
- 3.4 Merkataritza-hirigintzako ekintzak

3.1 Animazio- eta dinamizazio ekintzak:

Giro atsegina eta erakargarria sortzea xede duten proiektu eta jarduketak, bezero potentzialak zein egungoek hiriko zona komertzialak erosketak egiteko bisita ditzaten sustatze aldera.

Apartatu honetan sartuko dira honako ekintza hauek:

- Musikaz girotzea eta kale-animazioko bestelako jarduerak artistikoak.
- Haur, gazte, familia eta intereseko beste edozein gizarte-taldera bideratutako jarduerak.
- Merkataritzari edo gizarteari orokorrean onura dakarkioten gizarte-ohiturak eta -jokamoldeak hobetzera bideratutako prestakuntza- eta dibulgazio-jarduerak (adibidez, birziklatzea, energiak hobe erabiltzea, etab.).
- Jarduera gastronomikoak, erakustaldiak edo jakiak dastatzekoak.
- Aurretik aipatu gabeko jarduerak, baina apartatu honetan aipatutako xedearekin bat datozenak.

Aire zabalean zein lokalen barruko aldean egiten ahal dira. Positiboki baloratuko dira herritarrei irekiak, doan eta aire zabalean egiten diren ekintzak.

Ekintzak diruz laguntzeko modukoak jotzeak ez dakar automatikoki ekintzak egitea baimentzea. Beste udal-zerbitzu batzuen baimena (Herri Segurtasuna, Osasuna) behar dutenak ohiko bideetatik tramitatu beharko dira.



3.2 Sustapen- eta komunikazio-ekintzak:

Zona komertzialetan bezeroak erakartzea, bezero kopurua handitzea eta horiek fidelizatzea xede duten proiektu eta jarduketak, bai eta tokiko negozioetan haien merkataritza-gastuari eustea eta igotzea eta, beraz, jarduketa-eremuko saltokietako salmentak igotzea xede dutenak ere. Halaber, merkataritzaren eta zona komertzialen irudia hobetzera bideratutako jarduketak barne hartzen dituzte, tokiko zein sektoreko elkarteek jarduketa eremuari lotutako sentsibilizazio- eta komunikazio-ekintzak. Entitate eskatzaileari lotutako saltoki guztiendako egindako ekintza amankomun eta globalak izan behar dute, ez baita onartuko saltoki batek norberaren izenean egindako sustapen edo kanpainarik.

Apartatu honetan sartuko dira honako ekintza hauek:

- Sustapen kanpainei lotutako zozketak, sariak, erakusgaiak eta opariak (on eta off line).
- Ohiko hedabideetan eta online hedabideetako publizitate-kanpainak.
- Marketin digitaleko kanpainetan erabiltzeko testuak eta ikus-entzunezko edukiak sortzea.
- Sustapen kanpainari lotutako sustapen eta merchandising materiala (hala nola kartelak, biniloak, erakusleihoak apaintzea edo seinaleztatze iragankorrak, eskuorriak, txartel handiak, etab).
- Harreman publikoko eta instituzionaleko ekintzak, hala nola jardunaldiak, topaketak eta merkataritzaren edo elkartearen irudia hobetuko duten askotariko ekitaldiak.
- Beste erakunde batzuek sustatutako jardueren eta ekitaldien babesletza, betiere zona komertzialaren sustapenean laguntzen badute (adibidez kirol-, gastronomia-, musika-ekitaldiak, eremuko salmentak erakartzeari lotzen ahal zaizkienak).
- Bezeroak fidelizatzeko ekintzak.
- Aurretik aipatu gabeko beste sustapen- eta komunikazio-jarduera batzuk, baina apartatu honetan aipatutako xedearekin bat datozenak.

3.3 Enpresen sustapenerako eta merkataritza-asoziazionismoko ekintzak:

Hiriko auzoetako txikizkako merkataritza, ostalaritza eta pertsonen zerbitzua emateko sektoreetako enpresa-ehuna indartu eta finkatzea xede duten proiektu eta jarduketak. Elkarrekin bultzatutako jarduketak, bai beren baliabideak erabilita bai zerbitzuak azpikontratatuta, lehiakortasuna hobetzen eta haien eragin-eremuan tokiko negozioak biziraun dezaten laguntzen dutenak. Merkataritza-sektorea hobetzen eta eremu horretako zerbitzuen aniztasuna eta kalitatea hobetzen laguntzen duten eremuko beste elkarte edo erakunde adierazgarri batzuekin lankidetzan egiten diren ekintzak. Elkarrekin garatzen eta sendotzen laguntzen duten jarduketak eta protagonismo handiagoa ematen diotenak auzoko edo guneko gizarte-eragile adierazgarri gisa hirian.

- Eremuko edo sektoreko merkataritzako belaunaldi-aldaketa errazteko ekintzak.
- Elkarteko kideak informatu eta prestatzeko ekintzak.
- Elkarrekin bera digitalizatzeko ekintzak.
- Bazkide berriak egiteko ekintzak.
- Federatutako erakundeetan parte hartzea.
- Aurretik aipatu gabeko beste sustapen-jarduera batzuk, baina apartatu honetan aipatutako xedearekin bat egiten dutenak.

3.4 Merkataritza-hirigintzako ekintzak:

Merkataritza-guneetako hiri-espazioa hobetzea xede duten proiektu eta jarduketak, hala zentzu estetikoan (edertzea) nola egokitasunean (irigarritasuna eta mugikortasuna). Merkataritza-hirigintzaren arloa nagusiki udal-eskumenekoa denez, apartatu honetan elkarteek ekintza guztiak baloratuko dira, baldin eta arlo honetan udal-kudeaketa osa badezakete eta lagungarri badira merkataritza-kaleak guneko atsegina, erakargarriago eta irigarriagoak izan eta denok goza ditzagun.

- Zona komertzialetan hutsik dauden lokal kopurua murrizteko ekintzak.
- Zona komertzialetan hutsik edo hondatuta dauden lokalen irudia hobetzeko jarduketak.
- Eremuko "mixa" edo merkataritza-eskaintza hobetzera bideratutako ekintzak.
- Zona komertzialetan Eguberrietako apaingarriak paratzeko jarduketak.
- Merkataritza-kanpainei lotutako hiriaren apainketa- eta dotoretze-ekintzak.



- Merkataritza-seinaleak paratzeko ekintzak.
- Fatxaden aparteko garbiketa-ekintzak eta hiria dotoretzeko jarduketak.
- Zona komertzialetako mugikortasuna hobetzeko ekintzak.
- Zona komertzialetako irisgarritasun unibertsala hobetzeko ekintzak.
- Lehenago aipatu ez diren merkataritza-hirigintzako beste jarduera batzuk, baina apartatu honetan deskribatutako xedearekin bat datozenak.

Apartatu guztietarako aplikagarria:

Kasuan kasuko txosten teknikoaren arabera apartatu honetan deskribatutako xede eta helburuei argi eta garbi laguntzen ez dieten jarduketak ez dira diruz lagunduko, ezta udal-aurrekontuetan onetsitako dokumentuan deskribatutako Merkataritza eta Turismoko Alorreko helburuez bestelako edo aurkako jarduketak ere.

Deialdian aurkeztutako jarduketek apartatu bakoitzerako zehaztutako helburuei eta deskribatutako xedeei egiten dieten ekarpena eskaeraren deskribapen-memorian azaldu beharko da.

Gremioko edo sektoreko elkarteek eskatutako jardueren kasuan, Iruñean kokatutako elkartekideen onura dakarten proiektu edo jarduketak izan beharko dute.

Ekintzak 2024ko urriaren 1etik 2025eko irailaren 30era bitarteko epean egin beharko dira.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 97.000 €

Proiektu bakoitzari 30.000 euro emanen zaizkio gehienez.

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 90/43110/479000

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: 1. Jarduera bakoitzaren puntuazioa (Pi) kalkulatu da H apartatuan ezarritako irizpideekin bat.

2. Jarduera bakoitzaren puntuazio haztatua (PHi) kalkulatzeko "i" jardueraren aurrekontu onartua (AOi) jarduera horren puntuazioarekin (Pi) biderkatu beharko da. $PPI = Pi \times PAi$

3. Puntu haztatuaren balioa (PB) kalkulatzeko, puntu bakoitzaren aurrekontu-kontsignazioa zatitu beharko da apartatu bakoitzeko puntu haztatuarekin (PHi).

DINAMIZAZIO-EKINTZAK ETA SUSTAPEN ARLOKO JARDUKETAK: $PB=100.000 \text{ €/PHi}$ guztien batura

4. Jarduera bakoitzerako dirulaguntzaren zenbatekoa (betiere eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu dutenetan) kalkulatzeko, jarduera bakoitzeko guztizko puntuazio haztatua (PHi) biderkatu beharko da puntu haztatuari emandako balioaz (PB). Dirulaguntzaren zenbatekoa= $PHi \times PB$

5. Lortutako dirulaguntzak jardueraren aurrekontu-defizita gainditzin badu, defizitaren zenbatekoa emanen da.

6. Dirulaguntzaren zenbatekoa banatu ondoren ez bada horretarako gaitutako aurrekontu guztia esleitu, beste banaketa bat eginen da sistema bera aplikatuz soberako zenbatekoari, aurrekontu-partidaren % 100 banatu arte edo diruz laguntzen ahal den ehunekoaren gehieneko laguntza eskuratu arte.

Onuradun bakoitzari jarduera bakoitzeko emanen zaion gehieneko zenbatekoak ezin izanen du gainditu onartutako aurrekontuaren % 80. Jarduera bakoitzerako emandako dirulaguntzaren eta jarduera bakoitzari zuzenean egozten ahal zaizkion diru-sarreraren arteko batuketa ezinen da izan diruz lagundutako jardueraren zenbatekoa baino handiagoa. Beraz, jarduerak banaka aztertuko dira bakoitzari dagokion dirulaguntza emateko.

Onartutako aurrekontutzat jotzen da deialdi honen L apartatuan jasotakoarekin bat diruz laguntzen ahal diren irizpideak betetzen dituen jarduerari dagozkion gastuen zenbatekoa, zeina dirulaguntza emateko fasean zehaztuko baita; eta defizitzat, berriz, onartutako aurrekontuari lortutako diru-sarrera guztien batura kenduta lortzen den zenbatekoa.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

4. Hainbanatzeko aukera:

☐ BAI ☒ EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu:

5. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

6. Urtekoak:

Urteko arrunta:	97.000 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa ()	€	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BETEKIZUNAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko betekizunak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izaten ahal dira onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

Sartzen ahalko dira honako baldintzak betetzen dituzten merkatarien elkarteak:

- Legearekin bat eraturik egotea eskaera aurkezten duten datan.
- Iruñean edukitzea taldearen egoitza soziala nahiz zerga-egoitza.
- Eguneratuak izatea zergei nahiz Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak.
- Eremuko elkartearen kasuan: Eskaera egiteko unean txikizkako merkataritzako gutxienez 20 elkartekide izan beharko dituzte Iruñeko udal-mugartean. Kopuru txikiagoa izanez gero, saltegi txikizkari elkartuen kopuru bat duten erakundeak izaten ahal dira onuradunak, baldin eta kopuru hori, haien estatutuen arabera, beren jarduera-eremuko auzoan edo kalean jardunean dauden txikizkako merkataritzako jardueren % 20 bada gutxienez.

Eremu horretan aktibo dauden saltokiak zenbatzeko, kontuan hartuko da eskaera egin den egunean GeoPamplona Informazio Geografikoaren Sistemaren Merkataritza-bisorean argitaratu den txosten berrienean ageri den alta-kopurua Iruñeko 13 auzoetarako eskuragarri dagoen jarduera-talde bakoitzeko, edo xede horretarako merkataritza-txostenak kontsultatzeko eta egiteko Iruñeak ezarritako berariazko tresna informatikoaren bidez (Power BI edo antzekoa) jasotako datuetan agertzen den kopurua. Txikizkako merkataritza guztira: txikizkako merkataritza-taldeetako alten batuketa, hain zuzen, honako hauena:

Elikagaien, edarien eta tabakoaren txikizkako merkataritza

Drogeria, farmazia, lurrindegi eta belar-denden txikizkako merkataritza

Etxeke ekipamenduen txikizkako merkataritza

Ekipamendu pertsonalaren txikizkako merkataritza

Beste produktu batzuen txikizkako merkataritza

(Baliabideak/Txostenak/Auzoak/Alta-kopurua jarduera-taldearen arabera atala) Webgunera esteka: Alta-kopurua jarduera-taldearen arabera (pamplona.es/eu)

- Gremio-elkartearen kasuan: Iruñekoak diren saltegi txikizkari elkartuen ordezkari esanguratsua eduki beharko dute. Esanguratsutzat joko da Iruñean establezimendua duten elkartekideak elkarteko bazkide-kopuru osoaren % 25 gutxienez izatea.

Dirulaguntza berezia denez, pertsona edo entitate onuradunek ez daukate zertan egiaztatu Dirulaguntzei



buruzko Ordenantza Orokorren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela:

☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko 5/2018 Foru Legearen 12.3. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, onuradunek Iruñeko Udalari eman beharko diote, honek aurretik eskatuta eta hamar eguneko epean, aipatutako 5/2018 Foru Legearen I. tituluan ezarritako betebeharrak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia.

Halaber, urtebeteko epean 20.000 eurotik gorako laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek, edo jasotako laguntzak edo dirulaguntzak gutxienez entitatearen urteko diru-sarreraren % 20 direnean, baldin eta gutxienez 5.000 eurora iristen badira, nahitaez eman beharko dute honako informazio hau: gobernu-, administrazio- eta zuzendaritza-organoen osaketa; kargudunen zerrenda eta horien dedikazio-araubidea; kargu bakoitzeko entitateak eskuratutako diru-sari gordinak eta bestelako diru-sarrerak, kontzeptuka banakaturik (VII. eranskina), eta urteko kontuak.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea eta hedapena eman beharko dizkiote dirulaguntzaren xede diren jardura edo proiektuen udal-finantzaketaren izaera publikoari. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko da komunikazio- edo publizitate-idatzi eta -grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da, gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitatean lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jardura / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebekar hau ez bada betetzen, dirulaguntza itzuli beharko da.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman den, horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 29.4 artikularekin bat: ☐ BAI ☒ EZ
Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Aurreikusi gabeko inguruabarren bat gertatuz gero, eta salbuespenez, proiektuan aldaketak egiten ahalko dira, betiere laguntzak emateko ebazpena eman baino lehen Alor kudeatzaileak balorazioa egin eta oniritzia ematen badu.

Aldaketak balorazio-irizpideei eraginez gero, P apartatuko justifikazio-fasean aipatutakoaren arabera doituko da.

G. ESKABIDEAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskabideak aurkezteko tokia:

Eskabideak telematikoki aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (<https://sedeelectronica.pamplona.es/?idioma=2>) argitara emandako "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoendako" delako izapidearen bidez.

Deialdi honetan ez dira onartuko telematikoki aurkezten ez diren eskabideak; izan ere, entitate eskatzaile guztiak Administrazio Publikoekiko harremanak elektronikoki edukitzera beharturik baitaude.

2. Eskabideak aurkezteko epea: Hilabete bat, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aitzina. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko eskabidez (aurkezpen telematikorako), interesdunak edo dirulaguntza eskatzeko ordezkapen nahikoa edukita ordezkapen horren gaineko erantzukizunpeko adierazpena egin duen pertsonak sinaturik, betiere "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoendako" izapiderako aurreikusitako jarraibideekin bat. Eskaera hauek deialdi honetako G.4 apartatuak aipatzen dituen agiriekin batera aurkeztu beharko dira.

Ez da beharrezkoa izanen deialdi honetako G.4) apartatuan aipatutako agiriak aurkeztea baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, jarduten duen Administrazioak jada bere esku baditu edo beste ezein Administrazioak egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu betekizunak betetzen, ez badira deialdi honetan ezarritako agiriak aurkezten, edo bestela, ez bazaio Iruñeko Udalari baimenik eman agiriok egin dituen administrazioaren bidez



eskurtzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldez aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

Aurrekoan xedatutakoa gorabehera, Udalak edo haren mendeko erakunde autonomoek ezin badute agiriaren bat eskuratu, eskatzaileei eskatzen ahalko diete hura aurkezteko, edo, bestela, agiria zein betekizuni dagokien eta horiek beste bide batzuk erabiliz egiaztatzeko, betiere ebazpen-proposamena egin baino lehen.

Entitate eskatzaile bakoitzak dirulaguntza jaso ahalko du aurretik aipatutako edozein jarduketa-ildori (3.1, 3.2, 3.3 eta 3.4) lotutako jarduketa bat edo gehiago egiteko. Ekintzetako bakoitza banaka baloratuko da, koadro honetako H) apartatuan ezarritako irizpideekin bat.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak. Honako dokumentu hauek: entitatea legeekin bat eraturik dagoela egiaztatzen duen dokumentua, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen duena, eta eskabidea aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela egiaztatzen duen dokumentua.

Ez da beharrezkoa izanzen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu. Kasu horretan, IX. eranskina bete beharko da.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, izapide telematikoa ezarritako argibideekin bat, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta onuradun izateko ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluaekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak horiek, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin baditu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztapenak aurkeztu beharko ditu dirulaguntza eskatzean egindako adierazpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

d) Deialdiak ezartzen badu eskatzailea pertsona-talde bat izaten ahal dela, izan pertsona fisikoak, izan juridikoak (publikoak ala nortasun juridikorik gabeko pribatuak), eskabidean berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkarrearen ordezkari edo ahaladun bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarrekin onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

e) Adierazpen bat, jakitera emanez helburu bera lortzeko beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi eskatu edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta eskatutako kopuruak, entitate emaileen izenak eta jasotako zenbatekoak, III. eranskinarekin bat.

☒ BAI ☐ EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

IV. eranskinarekin bat.

g) Erantzukizunpeko adierazpena, balio erantsiaren gaineko zergaren (BEZ) inguruan, V. eranskinarekin bat.

h) Erantzukizunpeko adierazpena, non jasoko baitira, eskabidea aurkezteko datan, honako alderdi hauek: bazkide-kopurua guztira, eta Iruñean kokatutako bazkide-kopurua jarduera ekonomikoaren xehetasunarekin (txikizkako merkataritza, ostalaritza, zerbitzuak), VI. eranskinarekin bat

.

Modu telematikoan egiten ez diren izapideetarako, agiriei jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

Modu telematikoan egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo benetakotzat egiaztatuak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera, horrek ekar ditzakeen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

Jarduera bakoitzaren edo garatu beharreko proiektuaren Deskribapen-memorian emandako informazioa kontuan hartuta egingen da balorazioa. Honako hau izanen da, gutxienez, memoriaren edukia:

- Jardueraren edo proiektuaren izena.
- Xedea eta aurkezten den dirulaguntza-lerroa (3.1, 3.2, 3.3 edo 3.4)
- Erdietsi nahi ziren helburuen eta lortutako emaitzen deskribapena. Argudiatzea hautatutako dirulaguntza-lerroan erdietsi nahi den xedera egokitzen dela eta 2030 Agendarekin bat egiten duela.
- Proiektuaren esparruan eta kronograman egin beharreko faseen, zereginen eta ekintzen laburpena.
- Ekintzan parte hartu duten bazkide-kopurua eta ekintzak onura eragin dien negozio-kopurua.
- Aurrekontua: finantzabideen zerrenda, aurreikusitako gastuen xehetasunekin, bai funts propioek beren gain hartutakoak, bai beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuk.
- Jardueraren gizarte-eragina: hala badagokio, eskatutako jardueraren gizarte-eraginari buruzko irizpideen informazioa.
- Jarduera baloratzeko garrantzitsutzat jotzen den informazio osagarriaren laburpena, deialdi honetan xedatutakoaren ondorioetarako.

BALORAZIO IRIZPIDEAK: Guztira, 100 puntu:

1. Entitatearen ordezkagarritasuna: 20 puntu.
2. Jardueraren edo proiektuaren kalitate teknikoa: 60 puntu.
3. Jardueraren edo proiektuaren eragin soziala: 20 puntu.

IRIZPIDEEN XEHAKAPENA

1. Entitatearen ordezkagarritasuna: 20 puntu.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Eremuko elkarteen ordezkagarritasunaren puntuazioari dagokionez, kontuan hartuko dira kide diren negozio guztiak, bai saltegi txikizkariak edo antzeko beste sektore batzuetakoak, hala nola ostalaritza, pertsonendako zerbitzuak edo bestelako zerbitzuak.

Eremuko elkarteak

- 1 puntu, 20 eta 25 negozio kideku bitarte baditu
- 5 puntu, 26 eta 50 negozio kideku bitarte baditu
- 10 puntu, 51 eta 75 negozio kideku bitarte baditu
- 15 puntu, 76 eta 100 negozio kideku bitarte baditu
- 20 puntu, 100 negozio kideku baino gehiago baditu

Gremio-elkarteak

- 1 puntu, onuradun izateko gutxienez iristen bada bakarrik
- 5 puntu, gutxienez gaitzen bada, baina Iruñean saltokia duten kidekiko saltokiak guztira kidekiko elkarteen % 30 baino gutxiago badira.
- 10 puntu, Iruñean saltokia duten kidekiko saltokiak % 30 edo gehiago eta % 49 bitarte badira.
- 15 puntu, Iruñean saltokia duten kidekiko saltokiak % 50 edo gehiago eta % 74 bitarte badira.
- 20 puntu, Iruñean saltokia duten kidekiko saltokiak % 75 edo gehiago badira.

2.- Proiektuaren kalitate teknikoa: 60 puntu.

2.A) Alderdi teknikoak: gehienez 55 puntu, eta honela banatuta:

- Oinarriak eta dirulaguntza-lerroaren xedearekiko egokitasuna: Gehienez, 15 puntu
- Helburuak zehaztea eta 2030Haren eta GJHren helburuekin bat etortzea: Gehienez, 15 puntu
- Esleitutako giza baliabideak eta baliabide materialak. Gehienez, 10 puntu
- Aurrekontuaren egokitzapena eta koherentzia: Gehienez, 15 puntu

2.B) Proiektuaren berezitasuna eta berritasunak: Gehienez, 5 puntu

Honela banatuko dira:

2.A) Alderdi teknikoak: gehienez, 55 puntu, ondoren xehakaturiko diren azpi-irizpideen arabera banatuta

Oinarriak eta dirulaguntza-lerroaren xedearekiko egokitasuna: Gehienez, 15 puntu

- Oinarriak ez badago, ez bada zehazten, edo zehazten bada, oinarritzea ezegokia edo ez nahikoa bada: 0 puntu.
- Oinarritzea eta egokitasuna orokorrak, zehaztugabeak eta gutxi garatuak badira: 7 puntu
- Proiektuaren oinarri zehatza eta xehatua aurkezten bada, eta bertan argudiatzen bada proiektua bat datorrela lortu nahi den dirulaguntza-lerroaren helburuekin: 15 puntu.

Helburuak zehaztea eta 2030Haren eta GJHren helburuekin bat etortzea: Gehienez, 15 puntu

- Ez dira helburuak definitzen edo ez desegokitzen jotzen dira edo ez daude dirulaguntzaren xedeari lotuta: 0 puntu
- Helburuak zuzen definituta daude eta helburu orokorrak zein zehatzak aipatzen dira, eta denak koherenteak dira proiektuan planteatzen den beharrezkin: 7 puntu
- Helburuak definitzeaz gain, operatiboak eta egingarriak badira, ebaluazio-adierazleak badituzte eta proiektuaren deskribapenarekin bat badatoz, eta 2030 Hiri Agendaren eta GJHren (Garapen jasangarriko helburuak) helburuekin argi lerrokatuta badaude: 15 puntu

Esleitutako giza baliabideak eta baliabide materialak: Gehienez, 10 puntu



- Ez dira azaltzen edo zehazten proiektuari esleitutako giza baliabideak eta baliabide materialak, edo eginez gero ez da egokia gehiegi edo gutxiegi izateagatik: 0 puntu
- Zehaztu eta azaltzen dira proiektuak dituen giza baliabideak eta baliabide materialak eta nahikoa baloratuta daude: 5 puntu
- Azaltzen eta zehazten dira proiektuari esleitutako giza baliabideak eta baliabide materialak, eta honako datu hauek daude: zenbatek egingen duen lan jardueran, haien profil profesionalak, baliabide teknikoak, eta bestelako datuak, baldin eta ondorioztatzen badute elkarte hautagaiaren egiturak eraginkortasun handiagoa bermatuko duela bai proiektua gauzatzeko, bai proposatutako helburuak lortzeko: 10 puntu

Jardueren aurrekontuaren egokitzapena eta koherentzia: Gehienez, 15 puntu

- Aurrekontu orokorra aurkezten da, xehakatu gabe edo behar beste aberastu gabe sor daitezkeen gastu-kontzeptuak baloratu ahal izateko: 7 puntu
- Xehakatutako aurrekontua aurkezten da, kontzeptuka xehakaturik, datu ugariarekin eta bete nahi diren helburuak baloratzea ahalbidetzen duena: 15 puntu

2.B) Proiektuaren berezitasuna eta berritasunak: Gehienez, 5 puntu

- Proiektuak ez du alderdi, programa edo ideia berritzailearik: 0 puntu
- Proiektuak alderdi, programa edo ideia berritzailearen bat du: 5 puntu

3.-Jardueraren edo proiektuaren eragin soziala: 20 puntu

3 A) Irisgarritasun unibertsalerako neurriak ezartzea, jarduerak egiterakoan:
Gehienez, 5 puntu, honako eskala honen arabera emanak:

- Ez du inongo neurririk gehitzen: 0 puntu
- Irisgarritasun unibertsala hobetzeko gutxienez neurri edo ekintza bat gehitzen du: 2,5 puntu
- Irisgarritasun unibertsala hobetzeko neurri edo ekintza bat baino gehiago gehitzen du: 5 puntu

Irisgarritasun unibertsala errazteko ekintza positiboko neurritzat hartzen dira dirulaguntza eskatzen den proiektuari gehitutako ekintza, doikuntza edo egokitzapen guztiak, baldin eta desgaitasuna duten pertsonak pairatzen dituzten oztopoak ezabatzea edo desabantailak saihestera edo konpentsatzera bideratuta badaude, planteatutako jardueran erabateko autonomiaz eta segurtasunez parte har dezaten errazteko.

Irisgarritasun unibertsala kontzeptuak honako eremuak jasotzen ditu:

- Irisgarritasun fisikoa: Erraz erabiltzen ahal den objektu baten nolakotasuna, edo erraz eskuratzen ahal den espazio batena, edo parte hartzen ahal den jarduera batena, pertsona batek izaten ahal dituen muga fisikoak –aldi baterakoak zein iraunkorrak– aipatutako jarduera erabat bizitzeko oztopo izan gabe.
- Zentzumen-irisgarritasuna: Erraz erabiltzen ahal den objektu baten nolakotasuna, edo erraz eskuratzen ahal den espazio batena, edo parte hartzen ahal den jarduera batena, pertsona batek izaten ahal dituen zentzumen-mugak –aldi baterakoak zein iraunkorrak– aipatutako jarduera erabat bizitzeko oztopo izan gabe.

Adibide gisa, honako neurri hauek planteatzen dira: Mugikortasun urriko pertsonak sartzeko arrapalak, egokitutako bainugelak, itsu batek ulertu ahal izateko hizkuntzara itzulpena, atsedeen-guneak, besteak beste.

3 B) Genero-berdintasunaren ikuspegia txertatzea jarduerak egiterakoan: Gehienez, 5 puntu, honako eskala honen arabera emanak:

- Proiektuaren diseinuan eta hura gauzatzean genero-ikuspegia kontuan hartu ezean: 0 puntu



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- Proiektuaren oinarrian (teorian) genero-ikuspegia gehitu bai, baina ez bada horrela egiten planteatutako jardueretan eta horien edukietan: 2,5 puntu
- Proiektuak bere jardueretan genero-ikuspegia duten ekintzak garatzen baditu, eta gainera, proiektuan generoaren arabera eraginaren ondorengo jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak aurreikusten baditu: 5 puntu.

3 C) Proiektuaren garapenaren osagarritasuna eta koordinazioa merkataritza-sektoreko beste erakunde batzuekin, enplegu babestuko enpresekin edo hiriko gizarte-erakundeekin: Gehienez, 5 puntu, honako eskala honen arabera emanak:

- Elkarte eskatzaileak ez du lankidetzan jarduten gizarte-izaerako edo enplegu babestuko ezein erakunderekin: 0 puntu
- Elkarte eskatzaileak gizarte-izaerako edo enplegu babestuko erakunde batekin edo batzuekin lankidetzaplanea aurkezten du, eta lankidetzaren horrek jardueran proposatutako helburuak lortzen laguntzen duela frogatzen du: 2,5 puntu
- Elkarte eskatzaileak izaera sozialeko edo enplegu babestuko erakunde edo erakunderen batekin emandako zerbitzuen lankidetzaren edo azpikontratazio partziala du: 5 puntu

3 D) Proiektuaren onuradun izanen diren balizko tokiko negozioak: Gehienez, 5 puntu, honako eskala honen arabera emanak:

- 1 eta 25 negozio bitarte: 1 puntu
- 26 eta 49 negozio bitarte: 2 puntu
- 50 eta 74 negozio bitarte: 3 puntu
- 75 eta 100 negozio bitarte: 4 puntu
- 100 negoziotik gora: 5 puntu

Parte hartzen duten elkarteek dirulaguntza jaso ahal izateko, banatuko diren 100 puntuetatik 50 erdietsi beharko dituzte, gutxienez. 50 puntu horietatik 25, gutxienez, "Proiektuaren kalitate teknikoa" 2. apartatuan erdietsi beharko dira.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeako, balorazio-batzorde bat eratuko da, kide hauek osatua:

Batzordeburua:	Mikel Armendáriz Barnetxea, Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Zinegotzi Ordezkarria.
Batzordekideak:	
1.	Carlos Andrés Uranga, Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko eta Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorreko zuzendaria / Ordezkoa: Benita Soteras Ramírez, Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko eta Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorreko idazkari teknikoa.
2.	Juan José Urdániz Villanueva, Merkataritzako teknikaria / Ordezkoa: Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko eta Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorreko teknikaria.
3.	María Carmen Nuin Larraya, Merkataritzako teknikaria / Ordezkoa: Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko eta Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorreko teknikaria
Idazkaria:	Angela Sanz Rives, Iruñeko Udaleko zuzenbidean lizentziaduna / Ordezkoa: Iruñeko Udaleko zuzenbidean lizentziaduna.

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa:



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat eginen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat ere bai, eta hor egiaztatuko du eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela dirulaguntza jasotzen duten pertsona zein entitateek dirulaguntzen onuradun izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea balioespen-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) apartatuan aurreikusten diren balioespen-irizpide objektiboen arabera.

Balioespen-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat eginen du ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

2. Ebatzi eta jakinarazteko epea: gehienez ere sei hilabetekoa izanen da, deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hortik aitzina.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntza jasoko duten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzaren zenbatekoa eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

☒ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

☐ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta udal-webgunean argitaratuko da, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 45. artikuluko b) letran agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- Tramitzatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- ☐ Epea kontatzeko beste sistema bat:

Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta, berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsitzat joko da.

K. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. DIRUZ LAGUNTZEN AHAL DIREN GASTUAK:

1. Diruz laguntzen ahal diren gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak badira eta deialdi honen L.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek laguntzen ahalko dira diruz:

1.1.- ENTITATEAREN ZEHARKAKO GASTUAK, ADMINISTRAZIOKOAK ETA FUNTZIONAMENDUKOAK

Jarduera edo proiektu bakoitzeko, gehienez ere justifikatutako gastu osoaren % 15 egozten ahal izanen da (zuneneko gastuak + zeharkako gastuak) diruz lagundutako jarduera egiten den aldiari dagozkion zeharkako gastu orokorren kontzeptuan, elkarteak jarduera proposatu eta gauzatze hutsagatik emandako dedikazio-denbora eta baliabide propioak aitortzeko. Horrela, jarduera edo proiektu bakoitzeko



justifikatutako guztizko gastua zeharkako gastu orokorrak bakarrik badira, justifikatutako guztizko gastu horren % 15 egozten ahal izanen da gehienez ere.

Honako hauek izaten ahalko dira zeharkako gastu orokorrak:

- a) Entitateko teknikarien gastuak. Autonomia izanez gero, merkatuko balioa izanen da, gehienezko batekin. Aurrekontuan zehaztu beharko da proiektua gauzatzean esku hartuko duten langileen maila profesionala edo haien arduraldia proiektuan. Justifikatzeko, nominak, zuzen egindako fakturak dagozkien atxikipenekin, eta abar aurkeztu beharko dira.
- b) Entitatearen egoitzaren alokairu-gastuak.
- c) Argi-, ur-, gas- eta telefono- zein Internet-gastuak.
- d) Beste zenbait gastu orokor (aseguruak)

1.2 AURKEZTUTAKO JARDUERA EDO PROIEKTUEI DAGOZKIEN ZUZENEKO GASTUAK

Jarduera edo proiektua behar bezala garatzeko beharrezkoak diren eta jarduera horrekin zuzenean lotzen ahal diren gastuak egotzi ahal izanen dira, betiere gastu horiek ez badakarkiete zuzeneko eta berehalako onurarik elkarteko kideei beren jardueraren parte izateagatik.

Honako gastu hauek diruz laguntzen ahal dira:

- Jarduera edo proiektuaren antolaketarekin zuzenean loturiko ezinbesteko gastuak.
- Zenbait animazio- eta dinamizazio-zerbitzutako gastuak.
- Kanpoko laguntza tekniko antolaketa eta koordinazio, aholkularitza eta prestakuntzarako.
- Jarduera diseinatzeko edo garatzeko beharrezkoak diren zerbitzuen kanpoko laguntza teknikoak.
- Online eta off line publizitatea txertatzeko gastuak eta beste komunikazio-gastu batzuk.
- Kanpainari lotutako sustapen-materialen gastuak.
- Kanpainari lotutako materialen eta objektu apaingarrien gastuak.
- Lehiaketa edo zozketetako sarietako gastuak, gehienez ere kanpainaren guztizkoaren % 20.
- Garraio-, ostatu- eta mantentze-gastuak jarduera garatzeko beharrezkoak direnean.
- Ekitaldi edo jarduera bat egiteko beharrezkoak diren guneen alokairu- edo/eta garbiketa-gastuak.
- Eskatutako ekitaldi edo jarduerari zuzenean lotutako profesionalen ordainsariak.
- Jarduerak egiteko beharrezkoak diren catering-zerbitzuen gastuak (tokiko elikagaien sustapena, prestakuntza-jardunaldietako atsedenetarako catering-zerbitzuak, sustapen- edo/eta dinamizazio-jarduerari lotutako produktuak dastatzea, etab.).
- Aurretik aipatu gabeko baina eskatutako jarduera hobeki egiteko eta helburuak lortzeko beharrezkoak eta egokiak izaten ahal diren beste gastu batzuk.

Aipatzen diren gastu guztiek eta "beste gastu batzuek" egokitasun eta proportzionaltasun argia izan behar dute proposatutako jarduera edo jardueretan.

Merkataritzako talde teknikoak kasu bakoitzean ekintzak eta ondoriozko beharrak aztertuko ditu, eta egiaztatuko du aurkeztutako gastua jarduerari egokitzen zaiola eta merkatuko prezioen tartearen barruan dagoela. Hala ez bada, merkataritzako talde teknikoak aurkeztutako gastua ukatzen ahal du eta eskatzen ahal dio elkarte-eskatzaileari egokitasun- eta proportzionaltasun-irizpideak jarraituz beste proposamen bat planteatzea.

Diruz laguntzen ahal diren gastuetan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) apartatuaren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

☒ BAI ☐ EZ



Honako gastu hauek ez dira inoiz ere diruz lagunduko:

2. Diruz laguntzen ahal diren gastuak egiteko epea: 2024ko urriaren 1 etik 2025eko irailaren 30era

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenak egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoa: % 80.

Onuradunak inola ere ezin izanen du itunik egin honako hauekin, dirulaguntzaren xede diren jarduerak osorik edo zati batean burutzeko:

- a) Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan jasotako debekuren bat duten pertsona edo entitateekin.
- b) Kontratazioaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsonak edo entitateak.
- c) Eragiketaren kostu osoaren portzentaje bat kobratzen duten bitartekari edo aholkulariak, non eta ordainketa hori egindako lan edo zerbitzuaren merkatuko balioa erreferentzia hartuta justifikatzen ez den.
- d) Onuradunarekin lotura duten pertsona edo entitateak, baldintza hauek bete ezean:
 - Kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egitea.
 - Aldez aurretik organo emailearen baimena eskuratzea.
- e) Deialdi eta programa berean dirulaguntzarik eskatu eta eskakizunak ez betetzeagatik edo behar adina puntu ez lortzeagatik dirulaguntzarik lortu ez duten pertsonak edo entitateak.

OHARRA: Onuradunarekin lotutako pertsonatzat edo erakundetzat joko da haren barruan dagoena elkartekide, federatu edo antzeko figura gisa.

D) letran adierazitakoaren ondorioetarako, lotutako pertsonatzat edo entitatetzat hartuko dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 68. artikuluan zehaztutako pertsonak edo entitateak.

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra: ☒ BAI ☐ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoa: % 20.

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Udalak diruz laguntzen dituen jarduerak beste administrazio publiko batek ere diruz laguntzeko aukera



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

dagoen kasuetan, Iruñeko Udaleko Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzio, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorra dagokion administrazio publikoarekin koordinatuko da zehazteko administrazio bakoitzak zer nolako tratamendua emanen dion beste administrazioak eskatu, eman edo ordaindutako dirulaguntzari, eta, edozein kasutan, bermatuko da bi administrazioek diruz lagundutako zenbatekoak –bestelako diru-sarreraren bidez finantzatuak–, guztira, ez duela gaindituko diruz lagundutako jardueraren kostua.

2024ko urriaren 1etik 2025eko irailaren 30era arte dinamizazio, sustapen eta merkataritza-hirigintzako jarduerak egiteko Iruñeko merkatarien elkarreendako dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko deialdi hau BATERAEZINA da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Merkataritza eta Kontsumoko Zuzendaritza Nagusiak onetsitako beste edozein dirulaguntzarekin.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatzen bada, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

- ☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.
- ☒ Konturako ordainketa:
 - ☐ Ordainketa zatikatua:
 - ☐ Ordainketa aurreratua:
 - ☒ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta alde aurrekoaren artekoa: Behin dirulaguntzen gaineko ebazpena eman eta gero, dirulaguntzak guztira zenbat jo eta horren % 60 ordainduko zaie, aurrerapen gisara, entitate onuradunei. Ordaintzeke geratzen den % 40 ordainduko da behin deialdi honen P) apartatuak aipatzen dituen gastuen justifikazio-agiriak aurkeztu, justifikazioaren gaineko balorazio-txostena egin eta gastuei buruzko txostena aurkeztu eta gero.

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

2. Bermeak eratzea:

- ☐ BAI ☒ EZ
- Eratzeko modua eta zenbatekoa:

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

- ☒ Justifikazio-kontua:
 - ☒ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).
- Justifikazioa modu telematikoan aurkeztu beharko da, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) gaitutako izapidearen bitartez: "Pertsona juridikoendako dirulaguntzen justifikazio elektronikoa".



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Diruz lagundutako jarduera dela-eta egindako gastuak oro justifikatuko dira, eta ez bakarrik Iruñeko Udalak emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren gastuak. Justifikazio-kontua jarraian aipatzen diren agiriak, haiekin batera aurkeztu beharko diren egiaztagiriek (fakturak eta frogagiri gisa baliokide diren gainerako agiriak, dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzen dutenak) eta deialdi honen VIII. eranskineko ereduak (Merkataritza-asoziazionismoko jardueren justifikazioa) osatuko dute:

Dokumentuak:

a) Diruz lagundutako jardueraren deskribapen- eta justifikazio-memoria, IV. eranskineko ereduarekin bat (eskabidearekin batera aurkeztutako IV. eranskinarekiko aldaketak baditu bakarrik).

b) Egindako jarduera guztien zerrenda, dirulaguntzarekin finantzatu direla eta kostua, orotara, adierazita.

c) Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua, non honako hauek identifikatuko baitira: hornitzailea eta dokumentua (faktura-zenbakia), kontzeptua, zenbatekoa, jaulkitze-data eta ordainketa-data, VIII. Eranskinean zehaztutakoaren arabera. Ziurtagiriak fakturak eta balio frogagarria duten bestelako dokumentuak izaten ahal dira, merkataritzako trafiko juridikoan baliozkotasuna edo administrazio-eraginkortasuna baldin badute eta horien zenbatekoa emandako diru-laguntzaren kargura ordaindu bada.

Egindako gastuak osagai guztiak jasotzen dituzten fakturen bitartez egiaztatuko dira, eta inongo kasutan ez da onartuko ordainagiri hutsik edo kutzako tiketik. Fakturak indarra duten legeen arabera jaulkiko dira, haietan zehazturik faktura egin duen enpresaren izena eta IFKa, fakturaren jaulkitze-data eta iraungitze-data, kontzeptua, zergei dagokien informazioa duen zenbatekoa eta fakturatu diren objektuen edo kontzeptuen xehakapena.

Agiriak jatorrizkoak izan beharko dute. Kontratututako zerbitzuen hornitzaileak emandako jatorrizko PDF artxiboak eta bankuak emandako ordainagiriak, diruz lagundutako gastuak egiaztatzeko agiriaren kopia sinple gisa onartuko dira. Nolanahi ere, Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko 11.1.c) artikuluan ezarritakoarekin bat, dirulaguntzaren onuradunek organo kudeatzaileak zehaztutako egiaztatze-jarduketak egin beharko dituzte, eta organo kudeatzaileak, dokumentuen originaltasunari buruzko zalantzarik izanez gero, aurrez aurreko tramitazioa eskatzen ahalko du.

Fakturak bat etorriko dira Fakturazio-betebeharrak arautzeko Erregelamendua onetsi zuen apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuarekin, eta, edozein kasutan, dirulaguntzaren eskatzailearen izenean jaulkita egon behar dute.

Ez dira, inongo kasutan, kontuan hartuko eskudirutan ordaindutako gastuak, baldin eta horiek halako eragiketei badagozkie non esku hartzen duen baten batek enpresaburu edo profesional gisara diharduen eta gastuak 2.500 euro edo gehiago –eta atzerriko txanponen kasuan, horrenbeste– jotzen duen, betiere iruzurraren kontrako prebentzio-ekintzak eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzak areagotzearen tributuen eta aurrekontuen gaineko araudia aldatu eta finantza-araudia egokitze urriaren 29ko 7/2012 Legean ezarritakoarekin bat.

d) Hornitzaileei ordaindu izana egiaztatzeko agiriak. Ordaindu izana dagokion banku-agiri bidez egiaztatu behar da, behar bezala sinatutako agiri baten bidez, edo bestela, aurkeztutako fakturak ordaindu egin direla egiaztatzen duen beste agiri bat aurkeztuz.

e) Jarduera finantzatu duten beste diru-sarrerak edo dirulaguntzak xehe-mehe adierazita, horien zenbatekoa eta jatorria barne.



f) Halakorik behar balitz, ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko geldikinak eta horiei dagozkien berandutze-interesak itzultzekoa.

g) Erantzukizunpeko adierazpena, gardentasun-betebeharrari buruz, VII. eranskinarekin bat, eta, hala behar izatera, urteko kontuen kopia.

Baldin eta benetako defizita edo benetako gastuak eskaera egitean aurreikusi eta dirulaguntzaren zenbatekoa hasiera batean zedarritzeko baliatutakoa baino txikiagoak badira, proportzioan murriztuko da ordaindu behar den zenbatekoa.

Halaber, proiektua neurri batean ez betetzeak dirulaguntzaren zenbatekoa itzultzea ekarriko du, edo, hala badagokio, kobratzeko eskubidea galtzea.

Jardueraren justifikazio-agiriak jaso ondoren, Merkataritzako lantalde teknikoak egiaztatuko du jarduera aurrekontuan jasotako proiektuarekin bat egin dela, eta emakida-fasean proiektuak jasotako puntuak eta azkenik gauzatu den proiektuari dagozkionak bat datozela.

Gauzatutako proiektuari dagokion puntuazioa dirulaguntza emateko fasean emandakoa baino txikiagoa dela egiaztatzen bada, dirulaguntzaren zenbatekoa honela murriztuko da:

* Aurrekontuan jasotako jardueraren eta gauzatutakoaren arteko aldea 1 eta 5 puntu artekoa bada, ez da ezer murriztuko, jardueran funtsezko aldaketarik ez dela egon ulertuko baita.

* Aurrekontuan jasotako jardueraren eta gauzatutakoaren arteko aldea 6 eta 10 puntu artekoa bada, % 5 murriztuko da emandako zenbatekoa.

* Aurrekontuan jasotako jardueraren eta gauzatutakoaren arteko aldea 11 eta 15 puntu artekoa bada, % 10 murriztuko da emandako zenbatekoa.

* Aurrekontuan jasotako jardueraren eta gauzatutakoaren arteko aldea 16 eta 20 puntu artekoa bada, % 15 murriztuko da emandako zenbatekoa.

* Aurrekontuan jasotako jardueraren eta gauzatutakoaren arteko aldea 21 eta 25 puntu artekoa bada, % 20 murriztuko da emandako zenbatekoa.

* Aurrekontuan jasotako jardueraren eta gauzatutakoaren arteko aldea 26 eta 30 puntu artekoa bada, % 25 murriztuko da emandako zenbatekoa.

* Aurrekontuan jasotako jardueraren eta gauzatutakoaren arteko aldea 31 eta 35 puntu artekoa bada, % 30 murriztuko da emandako zenbatekoa.

* Aurrekontuan jasotako jardueraren eta gauzatutakoaren arteko aldea 36 eta 40 puntu artekoa bada, % 35 murriztuko da emandako zenbatekoa.

* Aurrekontuan jasotako jardueraren eta gauzatutakoaren arteko aldea 41 eta 45 puntu artekoa bada, % 40 murriztuko da emandako zenbatekoa.

* Aurrekontuan jasotako jardueraren eta gauzatutakoaren arteko aldea 46 eta 50 puntu artekoa bada, % 45 murriztuko da emandako zenbatekoa.

Edozein kasutan, justifikazioaren fasearen ondoren jarduera egiaztatzean ikusten bada jarduerak ez duela diruz lagundua izateko gutxieneko puntuazioa lortu, hau da, ez dituela 50 puntu lortu, horietarik 25 H apartatuan azaltzen den "Egitasmoaren kalitate teknikoa" 2. apartatuan lortu beharrekoak, dirulaguntza % 100 murriztuko da.

Apartatu honetako g) letrako gardentasun-betebeharrei buruzko agiri guztiak ez aurkezteak berekin ekarriko du dirulaguntza itzuli beharra.

Jarduera bakoitzerako dirulaguntza emateko oinarritzat hartu den aurrekontuko gastua justifikatu behar da gutxienez; izan ere, justifikatutako zenbatekoa aurrekontua baino txikiagoa bada, proportzionalki murriztuko da hasieran emandako dirulaguntza (Dirulaguntzen Ordenantzaren 31.7



artikulua).

Dokumentazioa bitarteko elektronikoen bidez aurkeztean, elkarte onuradunek telematikoki aurkeztutako agiriaren egiazkotasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpen bat erantsi beharko dute, X. eranskinarekin bat. Kasu horretan, aurkeztutako agiriak ikusirik, organo kudeatzaileak, egoki jotzen badu, entitate onuradunari jatorrizko agiriak aurrez aurre erakustea eskatzen ahalko dio, aurkeztutako agiriaren egiazkotasuna egiaztatze aldera.

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.

Bestelako edukiak: ☐ BAI ☐ EZ

☐ Justifikazio-kontu erraztua.

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitateko egoera-orriak aurkeztea (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitateko egoera-orriak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☐ Beste sistema bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: Justifikazio-agiriak aurkezteko epea 2025eko urriaren 15ean amaituko da.

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan eta apartatu honetan adierazitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoiak bat gertatzen bada, zilegi izanen da bai jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, bai berandutze-interesak galdatzea – dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

Gastuak justifikatzeko agiririk aurkezten ez bada, aurkeztutako dokumentazioa osatugabea bada edo ezarritako epetik kanpo aurkezten bada, jasotako dirulaguntzaren zenbatekoa itzuli beharko da, edo, halakorik balitz, ordaintzeke dagoen kopurua jasotzeko eskubidea galduko da, betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45.1.c) artikuluekin bat.

Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean (IV. titulua) eta Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrean ezarritako arrazoiak gain, oinarri honetan jasotakoak ere izanen dira dirulaguntzak itzularazteko eta atxikitzeak arrazoiak.

Itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat joko dira. Dirulaguntzak itzultzeko prozedura Iruñeko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren IV. tituluko II. kapituluan ezarritakoaren arabera arautuko da.



R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertzeako errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

Dirulaguntzen inguruko arau-hausteak eta zehapenak Iruñeko Udalaren dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean IV. tituluan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☐ I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.

☐ II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.

☒ III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.

☒ ERANSKIN OSAGARRIAK.

IV. ERANSKINA. JARDUERAREN DESKRIBAPEN-MEMORIA.
V. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN (BEZA) INGURUAN.
VI. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, BAZKIDE KOPURUARI BURUZ ETA IRUÑEAN KOKATUTA DAUDENEI BURUZ.
VII. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, GARDENTASUN-BETEBEHARRARI BURUZ.
VIII. ERANSKINA. JARDUERAREN JUSTIFIKAZIO-MEMORIA.
IX. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, GALDATUTAKO AGIRIEN GAINEAN.
X. ERANSKINA. JUSTIFIKAZIO TELEMATIKOA.

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*